AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3142

704/2012 EBAZPENA, ekainaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Jesus M.ª Mongelos Ramírez jauna izendatzen da Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko, eta zerbitzu berezietan deklaratzen da.

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia, Zuzendaritza Nagusiaren martxoaren 15eko 204/2012 Ebazpenaren bidez egina, 2012ko apirilaren 26ko EHAAn (82 zk-ko) argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jesus M.ª Mongelos Ramírez jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko prestakuntza egokia duela ondorioztatu da.

Jesus M.ª Mongelos Ramírez jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa, Arabako Eskualdeko Fakultatibo Espezialista KSUko Medikua lanpostu funtzionaleko 728 ordenazenbakiko plazaren titularra dena, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko izendatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Eta, Gipuzkoako Osasun Barrutian Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua sortzen duen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2011ko urriaren 3ko Erabakiaren seigarren artikuluan xedatutakoa kontuan hartu behar da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jesus M.ª Mongelos Ramírez jauna, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Arlo Medikoko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Hiru urtetarako den izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion momentutik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Denboraldi hori igarotakoan, zuzendariak egindako kudeaketari buruz aldeko ebaluazioak badaude, beste hiru urtez luzatu daiteke lanpostu horretan segitzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Hirugarrena.– Jesus M.ª Mongelos Ramírez jauna zerbitzu berezietan deklaratzea, bere izendapena indarrean sartzen denetik.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.